

## **BATERAKO DEIALDIA ETA ADIERAZPENA, EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO KONTZILIAZIO ERANTZUNKIDEA SUSTATZEAREN FUNTSEZKO GARRANTZIARI BURUZKOA**

Etxeko eta zaintzako lanak egiteko erantzunkidetasuna beharrezko premisa da kontziliazio-neurrien erabilera emakumeengan, orain arte bezala, kontzentra ez dadin. Erantzunkidetasun-maila egokirik ez dagoenez, ordaindu gabeko zereginen banaketan gaur egun dagoen desorekak genero-faktore diferentzial oso garrantzitsua sartzen du, eta, azkenean, lan-esparruko hainbat eremutan eragiten du horrek. Bereziki, eragina du emakumeen ordainsari baxuagoetan (soldata-arraila) eta prestazio nabarmen murrizagoetan (pentsio-arrailak), baita haien karrera profesionalen jarraitutasunean eta garapenean ere, gizonen aldean. Erantzunkidetasuna sustatzea, beraz, pertsona guztien talentua genero-joerarik gabe aktibatzeke palanka bat da. Izan ere, emakumeen eta gizonen lanbide- eta lanbizitza berdintasunez garatzea ahalbidetzen du, haien kualifikazioan eta lanbidegaitasunetan soilik oinarrituta.

Era berean, Elkarrizketa Sozialaren Mahaiak onartzen du, kontziliazio erantzunkidea modu eraginkorrean lortzeko eta kasu bakoitzean hura bultzatzeko neurri egokienak zehazteko, pertsonen beharren eta enpresen ezaugarrien eta ekoizpen-prozesuen arteko akordio eta transakzio orekatuak lortu behar direla. Nolanahi ere, transakzio horiek elkarrizketaren eta negoziazio kolektiboaren bitartez bideratu beharko lirarteke.